

LAGUNTASUNAREN BILA

Oihan Olasolo Gisasola

Gernika-Lumo

Egun hartan gozatu nuen gutxitan bezala. Aspaldi ez nintzen antzokira joaten, eta benetan ikusgarria iritzi nion. Antzezlan moderno horietako bat izan zen, zentzua hartu arte nahiko aldrebeza, baina amaierarako, zoragarria iruditu ez ezik, atsegin eta gozamen handiz utzi ere egin nindue-na. Hori dela eta, handik aurrera antzerki gehiago ikusi behar nuela pentsatu nuen. Eta egia esanda, denbora luze honetan denetarik ikusi dut: antzezlan klasikoak, espermentalak, surrealistikak... Eta guztiotatik zerbait garbi atera dut, batzuetan museora joan eta ezer ere esaten ez dizun koadro baten aurrean zaudenean bezala geratzen nintzen arren. Hau da, *flipatzen*. Bada, kasu horietan ere, horixe ateratzen nuen argi eta garbi.

Gaztetan ere joaten nintzen antzerkira, Joxerekin. Garai polita izan genuen hura. Hainbat urte egin genuen ezkongaitan, eta ezkondu ere egin ginen. Baina gauzak ez ziren joan berak espero bezala. Ez dakit zergatik ezkondu ginen, ezkondu ere. Ez genuen uste bezain ondo elkar ezagu-

tzen. Berak familia ekarri nahi zuen. Halakorik, ordea, ez zen nire pentsamenduetan sartu ere egiten; eta hala, hainbat luzapen eman ostean, inoiz heltzen ez zen erabakia itxaroteaz gogaituta, nire bizitzatik alde egin zuen. Geroago berriro ezkondu eta aita egin zela entzun nuen. Inoiz ez diot bera maitatzeari utzi, eta benetan poztu nintzen, aita eginda asebeta zela jakitean. Neuk ere jarraitu nuen nire bizitzarekin. Asmo guztiak lanean ipini nituen, eta hurrengo urteetan ere, beste ezeri erreparatu barik horrexetan jardun nuen buru-belarri, jubilatutako nintzen arte. Une hori heldu zenean, baina, egunak amaiezinak egiten hasi zitzaizkidan, eta orduantxe konturatu nintzen bakarrik nengoela. Gurasoak aspaldi joanak nituen. Aspaldiko lagunek beren bizitzak, beren familiak zituzten. Bestetik, neuk ere ez nuen neure burua inon ere finkatu. Horregatik, egun batean asmo zehatzik gabe etxean Internet arakatzeko ari nintzela, hiriak daukan kultur agendarekin topo egin nuenean, miretsita geratu nintzen antzezlan eskaintza oparo hura ikusita. Eta berriro antzerkira joateko lehenengo gogo haiek piztu zitzaizkidan.

Halako batean, antzokian nengoela, dei bat jaso nuen. Joxeren amarengatik zen. Zendu berri zen eta hileta hurrengo egunean izango zen 19:30ean. Inoiz ez ditut hiletak atsegin izan, baina Joxe betiko laguna nuen, eta aspaldi ikusi ez arren, horrelako egoeretan egon egin behar da. Elizaren atarira heldu nintzenean, betiko lagunak aurkitu nituen. Urteetan elkar ikusten ez genuenez, bikotekideaz,

seme-alabez, bilobez aritu ziren denbora osoan. Nik, jakina, horretaz ez neukan ezer ere kontatzeko; eta egia esateko, ez nintzen egoera hartan bate-re eroso sentitzen. Horregatik, meza hasi zenean erlaxatu egin nintzen. Guztiei primeran zihoakien. Guztiek zituzten seme-alabak lanpostu onetan lanean. Eta bilobei buruz zer esan?! Horiexek, ba, etxe guztietako saltsak! Han bitxi bakarra neu nintzen. Dena den, ez naiz inozoa, eta badakit lagunek esandako guztia ez zela zirudien bezain polita. Guztien egoera ez zen suziriak botatzeko modukoa, ezta gutxiago ere. Baina tira, ni ez naiz inor besteen bizipenak edo sentimenduak zalantzan jarri edo kritikatzeko.

Kontua da, apaiza Joxeren amaren bizitzari errepasoa egiten hasi zitzaionean, egundoko tristura sartu zitzaidala. Normalean nire sentimenduak ondo ezkutatzekoa naiz, baina egun hartan inoiz ez bezalako estualdi bortitz batek barrua hartu zidan. Eta han, nire jertsean bilduta, malkoak isurtzen hasi nintzen. Negargurari eutsi nahi nik baina ezin, alferrik izan nituen ahalegin guztiak. Hasieran, beste edonori gerta dakioken bezala, negargura isila izan zen, baina pixkanaka areagotuz joan zitzaidan, gero eta era kontrolaezinean nire begietatik malko-errekak isuri ziren arte. Ezkerretara eserita neukan lagun baten emazteak, Martina izenekoak, neure saminez ohartuta, eskua nirearen gainean jarri eta estutu egin zuen. Gibelean eserita neukan beste lagun baten eskua ere sumatu nuen sorbaldan. Eta bakea elkarri ema-

teko unean, Martinaren musuek eta eskumatara nuen lagunaren besarkadak oso kontsolatu ninduten. Meza bukatu zenean, eta doluminak Joxeri erakustera hurbildu nintzaionean, lasaitu barik, berriro ere negargura hura azaleratu egin zitzaidan, eta ozta-ozta besarkatu nuen laguna, negar-malkotan hasi baino lehen.

Ikustekoa zen nola saiatzen zen Joxe ni kontsolatzen, alderantziz izan beharrean. Esan behar dut une hura aski lotsagarria izan zela niretzat, egoera hura ulertuko ez zuen jende ezagun asko bainuen inguruan; baina bestetik, izan nuen sentsazioa zoragarria izan zen. Ez nago ohituta kontaktu fisikora, edo ahaztuta daukat. Ez dakit nola esan. Baina egun hartan besteek izan zuten nirekiko jarrera bihozberak adoretu ninduen, ondo sentiarazi ninduen, egundokorik ondoen, eta etxera heldu nintzenean hobeto sentitu nintzen, osoago, beteago.

Harrezkero neure buruari zin egin nion lagunekiko harremana berritu eta sendotuko nuela. Gerora, denborak erakutsi dit gauzak ezin direla behartu, berez etorri behar dutela. Eta, noski, gaur egun denok daukagu bizitza era batean antolatuta, eta askotan, hasiera batean asmoak oso onak badiugu ere, gogo ezagatik, betidanik ezagutzen dugunari, egunerokotasunari, alegia, eusten diogu, beste ezertarako zirrikiturik utzi barik. Horregatik, arrazoi batzuk eta beste tartean, Joxeren amaren hiletan, neurea egin nuen asmoa martxan jartzen hasi baino lehen zapuztu egin zitzaidanari, hau da, antzerki-gogoari, heldu nion tinkoago.

Egun batean antzezlan oso interesgarri bat ikusten ari nintzela —gaia, idazle baten bizitza aldrebes eta zapuztua zen—, bururatu zitzaidan, Martinen amaren hiletan suertatu zitzaidana gai polita izango zela istorio bat idazteko. Ikuskizunaren ostean, etxerantz nindoala, itzulinguru horiekin buruan nenbilen, Done Frantzisko elizaren inguruan jende multzo handiarekin topo egin nuenean. Ostegun arratsaldea zen, 20:30ak. “Hiletak izan behar du!”, pentsatu nuen neure barnean. Bihozkada batek jota elizaren atarira hurbildu nintzen, ea hildakoa ezaguna nuen. Ezaguna ez zela ikustean, hasperen luzea egin, eta buelta erdia eman nuen handik alde egin nahian, baina beste zerbaitek bultzatuta, ostera biratu eta elizan sartu nintzen. Ingurura begiratu nuen. Ez nuen inor ere ezagutzen. Hutsune nahikoa zegoen artean, eta elizaren erdialdetik aurrera joanda eseri nintzen.

Apaiza hizketan hasi zenean, aurreko hiletan izan nituen sentsazio berberak pixkanaka azaleratu zitzaizkidan. Hasieran, lehenengo malkoak isurtzeko ahalegin handiak egin behar izan banituen ere, hortik aurrera, dena errazagoa izan zen, malkooi, negar-errekek eta zotinek neke gabe, iz-iz, jarraitu zieten. Berehala, alboan nuen andre batek besotik estu hartu ninduen, eta beste aldean nuen gizonak kolpetxo batzuk eman zizkidan bizkarrean. Mezaren amaieran hilkutxara hurbildu nintzenean, emakume horrek nire besoa bere besoen artean hartu, eta inork egin ez duen legez, kontsolatu ninduen. Egun horretan ere, Joxeren amaren hile-

tan bezala, lasai joan nintzen etxera, nire lasaitasun beharra asebeteta.

Handik gutxira besteen errukia behar nuela konturatu nintzen. Eta hori guztia besarkadaz betetzen zela.

Horregatik, ondo sentitzeko besarkadak eta maitasun-zeinuak behar nituela jakitun egonda, nire betiko zaletasunari beste bat gehitu nion: hiletetara joatea.

Ez zen aurrez pentsatutako kontua izan. Lehengo egun batean, antzezlan bat ikustetik nentorrela, neure burua noraezean ikusi nuen, nire urratsek beste eliza baten atariraino eraman ninduten arte. Eta hortxe jakin nuen besteak behar nituela, gainontzekoen kontaktua behar nuela bizirik nengoela sentitzeko. Horretaz konturatzea gogorra izan zen niretzat, hainbat urtetan bakarrik bizi izan eta gero, inoren beharra ez nuelako uste sendoa bainuen. Uste hori, ordea, indarra galtzen joan zen denborarekin, eta beldur ikaragarria hartu nion etxeari, bertara ailegatzean lagun barik egoteari.

Hala, batetik nire beldurrak eta bestetik hiletetara joateak ekartzen zizkidan onurak ikusita, nire jarduna profesionalizatu nuen. Egunero ez neukan antzerkiak ikustera joaterik. Nire diru-sarrerek ez dute horrenbesterako ematen, eta egunero ere antzezlanik ez da izaten. Hiletak, ordea, maiz izaten dira eta doan, gainera. Hortaz, egunkaria goizero erosten hasi nintzen. Eskelen atalean ireki eta hileta bat aukeratzen nuen. Arreta berezia jartzen

nuen elizak aukeratzen. Ez nuen inork susmo txarrik hartzerik nahi, eta horregatik astean zehar elizarik ez errepikatzeko erabakia hartu nuen. Antzezpena ere profesionalizatu nuen, eta neure samina azaleratu orduan, aldioro buruan nuen antzerki-lanetan mila bider antzezleei ikusia niena. Hala, guk geure eskua ezagutzen dugun bezala, ni malko eta negar-mota guztiak menderatzera heldu nintzen. Bai. Pena-, min-, negar-kontuetako profesionala bihurtu nintzen. Elizaren mende bizi ziren garaiko hiletariak egun izango balira, eta eurak kontratatzea balego, ziur neu gehien kontratatutakoa izango nintzatekeela. Eta eskubide osoz, gainera, negarra mendean hartzea ez baita afera erraza. Egia da, bestalde, negar eragitea errazagoa dela barre eragitea baino. Horixe diote, behintzat, kontu horietako adituek. Baina ez diot meriturik kenduko menderatzen eta hobetzen denbora luzea eman dudan abilezia honi.

Horrela, elizaz eliza ibiltzen hasi nintzen, nire maitasun beharra, nire hutsunea betetzen. Besarkadak, erruki-hitzak, denak ziren niretzat. Nire bakardadea bakarrik ez pasatzen laguntzen zidaten.

Baina azken bolada honetan neure baitan zerbait aldatzen hasi da. Azken hiletako batean suertatu zen. Beti bezala, egunkaria hartu nuen, eta eguneko albisteei gainbegiratu azkarra egin ostean, eskelen orrialdera jo nuen. Ohi bezala hainbat aukera zegoen, eta haien artean behin ere izan gabeko eliza bateko hileta hautatu nuen.

Eliza hiriaren beste muturrean zegoen, eta haraino hurbiltzeko trenez joatea erabaki nuen. Elizak ez zeukan ezer berezirik. Are gehiago, ezer ere esaten ez duten eliza moderno horietako bat zen, etxebizitza-eraikin baten behealdean jarrita. Hasieran hura topatzea kostatu zitzaidan, baina berehala jende-multzo batek adierazi zidan lekua. Sartu nintzenean, senideak aurreko eserlekuetan zeuden. Goiz zen, eta beraien atzean inor ere ez zegoen. Hala, nire aktuazioa errealismo handiagoz interpretatu nahian, aurrerantz jo nuen eta familiagandik bi bankutara eseri nintzen. Eliza pixkanaka bete egin zen, eta hantxe plazaratu nuen nire trebezia guztia. Senideak ez ziren ezertaz ere konturatu, baina nire inguruan zegoen jendeak, familiakoa nintzela sinetsita, inoiz baino laztan gehiago eman zidan. Dena ohi bezala zihoan, familiari doluminak ematera hurbildu nintzaion arte, egundoko ezustekoa hartu bainuen. Ilaratik atera eta handik ihes egiten ere saiatu nintzen, baina haien aurrean esertzean, ez nuen horretarako aukerarik izan, eta konturatu nintzenerako lerroaren erdialde parean nengoen, Joxeren parean. Ikusi nindue-
nean, harridura-aurpegia jarri zidan.

—Eskerrik asko etortzeagatik! —esan zidan, mal-
koen artean irribarre txiki bat ezpain-ertzean
marrazten zitzaiola.

—Jakin nuenean... —gezurra esan nion, ganora
gabe besarkatzen nuela.

Hura inoiz egin dudan antzezpen txarrena izan
zen. Zeharo jokoz kanpo nengoen, are gehiago eli-

zatic irtetean itxaroteko eskatu zidanean. Baina nork esan behar zidan Joxe topatuko nuela hileta hartan? Kanpoan ez genuen luze jo. Ez zen momentua, gainera. Bere bisita-txartela eman zidan. Deitzeko. Ondo legokeela egun batean biok gertzea, elkarrekin mintzatzea.

Eta orain, hementxe nago, etxean. Sukaldeko mahai gainean, egunkariko eskelen orria alde batean, eta Joxeren txartela bestean. Harrezkero ez dut inongo elizan hankarik sartu ere egin. Ez dakit. Joxe topatu nuenetik, etengabeko eztabaidan nago neure barruarekin. Zer egin? Deitu ala deitu ez? Zertarako, ordea? Halere, nire barruan zerbaitek deitu behar diodala esaten dit, baina...

Dena dela, behar besteko adorea eduki bitartean, antzerkiaren beste teknika batzuk ikasten eta hobetzen hasiko naiz: nola irribarreak sortu...